

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA



-2023/24 ikasturtea-

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
a. Ikastetxearen testuingurua.....	3
b. Azpiegiturak.....	4
c. Proiektuaren justifikazioa.....	4
d. Elaborazio prozesua eta lan taldea.....	5
e. Proiektu digitalak hezkuntza proiektuari eta urteko planari egiten dion ekarpena.....	5
2. Ikastetxearen egoeraren analisia.....	6
a. Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa. SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.....	6
b. Autoebaluazioaren ondorioak: Hausnarketa eta AMIA tresnatik ateratako ondorioak.....	7
3. Helburuak.....	8
4. Ekintzak.....	10
5. Proiektuaren ebaluazioa.....	12



1. Sarrera.

a. Ikastetxearen testuingurua.

CEPA Sestao HHI Helduentzako irakaskuntza eskaintzen duen ikastetxe publikoa da. Sestaoko udalerrian dago kokatuta, Bilbo Handia deritzon eskualdean.

Ikastetxeak, bere historian zehar kokapen ugari ezagutu izan ditu 1983-84an jaio zenetik. Azken lekualdatzea 2022-23 ikasturtean izan da, Kuetoko gizarte zentroa dagoen eraikinera, Marcos Grijalvo kalean.

Hezkuntza-formakuntza eskaintzari dagokionez, bi zatitan banatu daiteke; arautua eta ez arautua. Hezkuntza arautua lehen eta bigarren hezkuntza ikasketetan oinarritzen da, 3 gradutan banatzen da eta azken helburua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluaren lorpena da. Gradu bakoitzak 4 modulu ditu, modulu bakoitzak lauhilabete bateko iraupena du. Edukiak 3 arlotan banatuta daude: zientifiko teknologikoa, soziala eta komunikaziokoa.

Arautu gabeko hezkuntza ikastaro anitzek osatzen dute, oro har, ikasleriaren eta hiritargoaren eskariari erantzunez. Hori dela hezkuntza eskaintza ez arautua, hizkuntzetan (ingelesa, gaztelera eta euskera) eta digitalizazioan oinarritzen dira.

Ikaslegoaren osaera sozioekonomikoa heterogeneoa da eta udalerrriaren ezaugarri demografikoekin bat dator, hau da, inmigrazioaren eta biztanleriaren zaharkitzearen eragina bereziki nabaria da gure ezaugarriak dituen zentro batean. Ikasleen tipologia sailkatzeko faktore nagusiak bi lirateke, jatorria eta adina.

Alde batetik atzerritarren presentzia handia da, non Magreb-eko eta Sahara hego-mendebaldeko jatorriko ikasleak diren talde nagusia. Atzerritarren artean gazteak zein adinekoak daude. Normalean ibilbide antzekoa egiten dute, arautu gabeko irakaskuntzetan hasten dira “Atzerritarrentzako gaztelera”-rekin eta ondoren graduetara doaz, haien helburua DBH titulua lortzea baita gero ikasketa espezializatuak aurrera eramateko, lan merkatuan aukera hobek izateari begira.

Beste aldetik, udalerriko eta inguruko jubilatuak dira bigarren talde esanguratsuena. Hauen kasuan, hezkuntza ez-arautuak paper garrantzitsuagoa hartzen du, hala ere,

araututako hezkuntzan ibiltzen dira baita ere. Hauen asmo nagusia, mundu modernoan hobeto moldatzea da digitalizazioaren bidez eta aldi berean burua aktibo mantentzea zaharkitzearen eraginak lausotzeko. Bi gauza hauek batuz gero, familiarekiko dependentzia harremanak txikitzen dira eta autonomia irabazten dute eguneroko bizitzarako.

Ikastetxeko klaustroa, 9 irakaslek eta beste ikastetxe batekin elkarbanatutako orientadore batek osatzen dute. Klaustroaren ezaugarri nagusi orokorrak bi dira: irakasle kopuru txikia eta adina. Plantilla finkoaren zati handi bat hemendik gutxira (2024) jubilatuko egingo da, honek suposatzen duen guztiarekin epe luzera egin behar diren proposamenei begira, are gehiago kontuan izanda klaustrokideen %33a ez dela finkoa. Honek egoera ahulean uzten du zentroa epe luze edota erdiko plan bat ezartzerako orduan; izan ere edozein neurri jarraitasuna ematea bereziki zaila izango da.

Ikasleen jatorriarekin eta adinarekin zerikusia duen egoerak, berezitasunak sortzen ditu digitalizazioaren inguruan hitz egiten dugunean. Hurrengo arazoak planteatzen zaizkigu: baliabide ekonomiko eskaseko ikasleen azpiegitura eskasak, askok ez baitute ordenagailurik edo WiFirik izateko aukerarik, eta adinduen trebetasun eta digitalizatzeko zailtasunek edo borondate faltak. Horri, ikastetxearen eraikinak eta klaustroak aurkezten dituen berezko arazoak gehitu behar zaizkio. Proiektu honetan zehar zabalago hitz egingo da kontu hauei buruz.

b. Azpiegiturak.

Ikastetxearen instalazioek bi zati bereizi dituzte; lehenengo zatian -3 eta -4 solairuak daude eta bigarren zatia -5 solairuak osatzen du. -3 solairuan atezaintza, orientazio gela, liburutegia eta 5 ikasgela daude, -4 solairuan irakasle gela, idazkaritza, zuzendaritza eta beste bi gela. -5 solairuan, ikus-entzunezko, informatika, errefortzu eta tutoretza gelak.

Ikastetxean Hezkuntza Sailaren WiFi konexioa dago, solairu eta gela guztietara haltzen dena. WiFi sare hau eskuragai dago bai ikasle eta bai irakasleentzat.

Ikasgela guztiek mahaigaineko ordenagailu bat dute eta arbela edo pantaila digitala ikastetxeko sarera konektaturik. Partekatutako espazioek ere, irakasle gelak adibidez, 4 mahaigaineko ordenagailu dituzte.

Informatika gelak, 20 ordenagailu eramangarri ditu bere karga armairuarekin.

Ikastetxeak [webgunea](#) du.

c. Proiektuaren justifikazioa.

Azken ikasturteetan, gure ikastetxeak pendiente izan dituen gauzen artean bat, proiektu digitala izan da. Aurrerapausu txikiak egin izan dira, adibidez, SMS zerbitzua aktibatzea. Ildo horri jarraituz, gure nahia da aurrera egiten jarraitzea.

XXI. mendeko gizartea gero eta digitalizatuagoa dago, ondorioz, lan merkatuak eskatzen dituen profilak, konpetentzia digital maila gero eta altuagoa du. Hori dela eta funtsezkoa da ikaskuntza-irakaskuntza prosezuan konpetentzia digitala lantzeko baliogarriak diren ekintzak aurrera eramatea. Horrek, lehenik eta behin irakaslegoaren formakuntza digitala eskatzen du, gero ikasleei helarazi diezaieten. Egungo hezkuntzak ikasleak TIC-etan gaitu behar dituelako ustearekin egiten dugu proiektu hau.

Hala ere, gure ikastetxeak digitalizazioa bereziki zailtzen duen ezaugarri batzuk aurkezten dituen heinean, garrantzitsua da Ikastetxeko Proiektu Digital-ean (IPD aurrerantzean) egiten ditugun proposamenak zentzudunak izatea, hau da, gure aukerak eta mugak ondo identifikatzea benetan egin daitezkeen gauzetan zentratu ahal izateko.

d. Elaborazio prozesua eta lan taldea.

Plan honetan proposatutako dena irakasle taldearekin adostuko da, izan ere guztiongan eragina izango duten erabakiak hartuko dira. IPDa arduradun digitalaren esku geratzen da eta zuzendaritza taldearekin elkarlanean egingo da ikastetxeko beste proiektuekin bat etortzeko.

Lehentasuna emango zaio epe motzean egin daitezkeen eta ikastetxearen funtzionamendua hobetu ahal duten ekintzei.

e. Proiektu digitalak hezkuntza proiektuari eta urteko planari egiten dion ekarpena.

IPDak, IUPak egindako proposamenak hartu eta konplexutasun maila handiagoan lantzen ditu, ikastetxeko testuinguruan gauzatu ahal izateko.

Aurretik IUPean planteatutako proposamenak honako hauek izan ziren:

- Klaustroaren formakuntza digitala hobetzea.
- Ikaslegoa animatzea posta elektronikoak sor ditzaten.
- SMS zerbitzuaren abiarazpena.
- Webgunea berritzea.

IPDak hurrengo IUPean jasotzeko aurreikusten dena:

- Sortutako posta elektroniko taldeak barne-komunikaziorako erabiltzea kurtso hasieratik.
- Gaitutako espazio eta baliabide digitalen erabilera sustatzea ikasleen artean.
- Metodologia eta ebaluazioaren digitalizazioaren inguruko eztabaida hastea.
- Formakuntza digitekiko konpromisoa bultzatzea.

2. Ikastetxearen egoeraren analisisia.

a. Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa. SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

2023ko abenduaren hasieran Selfie for Schools (aurrerantzean SfS) tresna jarri genuen martxan, ikastetxearen inguruko balorazio orokorra lortzearren, ikas komunitatea ahal genuen neurrian inplikatur. Tresna honek, ikastetxeko hiru talde nagusien iritzia biltzen du eta informe bat eskaintzen du, gerora sendotasunak eta ahultasunak identifikatu eta tratatu ahal izateko.

Aldez aurretik beharrezkoa ikusten dugu aipatzea talde guztiek ez dutela parte hartu eta pertsonalizatutako galderarik ez dugula gehitu.

Hauek dira SfS-ek neurtzen dituen atalak:

1. Lidergoa
2. Kolaborazioa eta sareak
3. Azpiegitura eta ekipamenduak
4. Etengabeko prestakuntza profesionala
5. Pedagogia: Laguntza eta baliabideak.
6. Pedagogia: Ikasgelan aplikatzea
7. Ebaluazio-jarduketak
8. Ikasleen konpetentzia digitalak.

	Ikasleak	Irakasle taldea	Zuzendaritza taldea
1. Lidergoa	-	2.8	2
2. Kolaborazioa eta sareak	3.9	2.4	2.2

3. Azpiegitura eta ekipamenduak	4.2	2.8	3.2
4. Etengabeko prestakuntza profesionala	-	2.9	2.3
5. Pedagogia: Laguntza eta baliabideak.	4.2	2.8	3.2
6. Pedagogia: Ikasgelan aplikatzea	3.6	2.3	2.1
7. Ebaluazio-jardu ketak	2.9	1.5	2
8. Ikasleen konpetentzia digitalak.	3.6	3.1	1.8

Gure SfS informeak, azaleko emaitza batzuk argitan uzten ditu: Neurtzen diren 8 ataletan, ikasleek balorazio hobea eman dute irakasle taldeak eta zuzendaritza taldeak baino. Ikasleen batz besteko puntuazioa 3,7koa izan da 5eko gehieneko puntuazitik, irakasle taldearen eta zuzendaritza taldearen aurrean, 2,6 eta 2,4ko puntuazioekin.

Puntuazio onena lortu duten atalak azpiegitura eta ekipamendua (3,4) eta laguntza eta baliabideak (3,4) dira eta puntuazio baxuena lortu duena lidergoa (2,4) eta ebaluazio jarduketak (2,1) dira.

Dena den, SfS tresnak emandako informazioak, guk pentsatzen genuena baieztatu du. Oro har digitalizazio prozesua zailtzen duten faktoreak bi dira; ikastetxeko plan koordinatu baten falta eta ikasleen baliabide mugatuak.

b. Autoebaluazioaren ondorioak: Hausnarketa eta AMIA tresnatik ateratako ondorioak.

BARNE FAKTOREAK		Faktore negatiboak
Indarguneak	Ahuleziak	
<ol style="list-style-type: none"> Geletakon azpiegitura informatikoa aproposa da. WiFi fidagarri eta egonkorra. Izaera honetako ikastetxe bakarra gara udalerrian. Gaitu berriko espazio digitalak. 	<ol style="list-style-type: none"> Irakaslegoaren formakuntza falta. Orain arte ez da Plan Digitalik egon. Irakaslegoaren egoera; klaustroa zeharo aldatuko da hurrengo urteetan. espazio fisikoak aurkezten dituen ahuleziak. 	
Aukerak	Mehatxuak	
<ol style="list-style-type: none"> Material informatikoaren berriztapenean aurrerapausu handiak egin dira. Plantillaren berriztapena emango da. 	<ol style="list-style-type: none"> Ikaslegoaren baliabide eta azpiegitura falta. Kokapena ez da zeharo aproposa, ikastetxea ez dago ikusgai. Izan daitezken ikasleek ez dute erraz gu ezagutzeko. Klaustroaren tamainuak, eskaintza arazoak sortzen ditu, izan ere arratsaldeko taldeak halabeharrez murriztuta daude. 	
KANPO FAKTOREAK		

3. Helburuak.

Gure ikastetxeko helburuak DigCompOrg¹ markoak proposatzen duenarekin bat datoz, honen esparruak kontuan hartuta. Esparru bakoitzak bere deskriptoreak ditu, hauen egokitasunaren arabera jorratuko direnak. Hurrengoak dira 7 esparruak:

1. Lidergo eta gobernantzako jardunbideak.
2. Irakaskuntza eta ikaskuntzako jardunbideak.
3. Garapen profesionala.
4. Ebaluazio jardunbideak.
5. Edukia eta curriculumak.
6. Elkarlana eta networkinga.
7. Azpiegitura.

Lidergo eta gobernantzako jardunbideak (LGJ)

Helburua
1. Ikastetxeko plan digitala planifikatzea eta aurrera eramatea
Deskriptoreak
<p>LGJ 1.1. Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da.</p> <p>LGJ 1.5. Planifikazioa erraztaileetan oinarritzen da, eta, aldi berean oztopoei heltzen zaie.</p> <p>LGJ 1.8. Aro digitaleko ikaskuntza lerrokaturik dago lehentasun zabalagoekin.</p> <p>LGJ 1.9. Helburu bikoitzak daude: lehendik dagoen hezkuntzahornidura modernizatzea eta aukera berriak eskaintzea</p> <p>LGJ 1.12. Baliabideak aurrekontuaren eta pertsonalaren arabera dira</p>

¹ [DigCompOrg \(Digigunean\)](#)

Irakaskuntza eta ikaskuntzako jardunbideak (IIJ)

Helburua

1. Ikaskuntza irakaskuntza prozesua hobetuko duten baliabide digitalen inguruko eztabaida eta hausnarketa abian jartzea.

Deskriptorea

IIJ 2.22 Pertsonalarentzat rol berriak aurreikusten dira

Garapen profesionala (GP)

Helburua

1. Formakuntza digitala sustatzea.

Deskriptorea

GP 3.31. EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin.

GP 3.32. Agerikoa da EGP ikuspuntu-sorta zabala dagoela

Elkarlana eta networkinga (EN)

Helburua

1. Barne komunikazioen funtzionamendua hobetzea euskarri digitalen bidez.

Deskriptorea

EN 6.55. Ezagutza trukatzeko ahaleginak errekonozitzen dira

Azpiegitura (A)

Helburua
1. Digitalizazioan laguntzen duten espazioak eta baliabideak eskaintzea.
Deskriptorea
A 63. Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak A 64. Ikaskuntza-ingurune birtualak optimizatzen dira

4. Ekintzak.

Helburua:	Lidergo eta gobernantzako jardunbideak			
Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IPDa egitea	IPDa egiteko gida	Arduradun digitala eta zuzendaritza taldea.	23-24 ikasturtea.	Bukatuta.
IPDa aurkeztea eta gainditzea	IPDa	Klaustroa	23-24ko ekaina	Bukatuta
IPDan proposatzen dena betetzea	IPDa	Arduradun digitala eta zuzendaritza taldea.	23-24 eta 24-25 ikasturteak	

Helburua:	Irakaskuntza eta ikaskuntzako jardunbideak (IIJ)			
Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Baliabide digitalen inguruko hausnarketa hastea.	Solasaldia egin iritziak proposamenak biltzeko.	Irakasle taldea	23-24 eta 24-25 ikasturteak	Hastapenetan
Klaustroaren iritzia jasotzea eta egoera baloratzea.	Formularioak bete eta solasaldi bat egin.	Arduradun digitala eta zuzendaritza taldea.	23-24 eta 24-25 ikasturteak	Hastapenetan

Helburua:	Garapen profesionala (GP)			
Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Berritzeguneak proposatutako formakuntza egitea.	Moodlegunea eta arduradun digitala.	Arduradun digitala.	23-24 eta 24-25 ikasturteak	Parte hartze minimoa.
Panel digitalak erabiltzen ikastea.	Ikastetxeko material propioa.	Arduradun digitala.	23-24 ikasturtea.	Bukatuta.

Helburua:	Elkarlana eta networkinga (EN)			
Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen posta elektronikoko korporatiboa aktibatzea	Posta elektronikoko korporatiboa	Zuzendaria	23-24 ikasturtea.	Bukatuta

Ikastetxeko barne komunikazioa posta elektronikoko korporatiboaren bidez egitea.	Outlook eta irakasle.eus helbide elektronikoa.	Zuzendaritza taldea	24-25 ikasturtearen hasieratik.	Ekintza orokortzeko prozesuan.
--	--	---------------------	---------------------------------	--------------------------------

Helburua:	Azpiegitura (A)			
Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Informatika gela txikia abian jartzea.	3 ordenagailu	Arduradun digitala	23-24 ikasturtea.	Bukatuta
Material informatikoen berriztapena	Panel digitalak	Zuzendaritza taldea	23-24 ikasturtea.	Bukatuta

5. Proiektuaren ebaluazioa.

Ikastetxeko lehen IPDa izanik, kontuan hartu behar da aurtengo ikasturtean planifikazio fasean gaudela (23-24). Aurrera eramandako ekintzen arrakasta neurtzeko, beharrezkoa izango da hauei denbora ematea.

Horrenbestez, hurrengo ikasturtea izango da aproposena, epe ertainean behintzat, lehen pausu hauen emaitzak ikusi ahal izateko eta noski, proiektua garatzen jarraitzea da helburua.

Bestalde, irakaslegoa plan digital honen eta etorkizunean egingo diren planen dinamikan sartzeko, malgutasunez jardun behar izango da, beraz, oraingoz, gure helburuak esparru honetan ez dira konplexuegiak izango, ez litzatekelako zuhurra izango.

	Helburua	Noiz ebaluatu?	Nola ebaluatzen da?	Nork ebaluatzen du?	Betetze gradua	Hobekuntza proposamenak
LGI	Ikastetxeko plan digitala planifikatzea eta aurrera eramatea	23-24 ikasturtea.	IPDa bukatu den begiratur.	Zuzendaritza taldea	Bete da	Klaustroaren inplikazio maila handitzea.
IJI	Ikaskuntza irakaskuntza prozesua hobetuko duten baliabide digitalen inguruko eztabaida eta hausnarketa abian jartzea.	24-25 ikasturtea.	Hurrengo IPDetan ekintzak proposatu diren ikusiz.	Zuzendaritza taldea	Ez da bete	
GP	Formakuntza digitala sustatzea.	23-24 ikasturtea.	A1/A2 mailak egiaztatuz.	Zuzendaritza taldea	Ez da bete	-
EN	Barne komunikazioen funtzionamendua hobetzea euskarri digitalen bidez.	24-25 ikasturtea.	Komunikazioa eraginkorra izan den baloratur	Zuzendaritza taldea	Erdizka	Zuzendaritza taldetik erabilera sustatuz.
A	Digitalizazioan laguntzen duten espazioak eta baliabideak eskaintzea.	24-25 ikasturtea.	Espazio berrien erabilera maila neurtu	Zuzendaritza taldea	Bete da	